



KLIK EGIN
eguraldi aurreikuspena ikusteko

GARA

EDICIÓN
IMPRESA

TEMAS DEL DÍA | OPINIÓN | EUSKAL HERRIA | MUNDO | ECONOMÍA | DEPORTES | CULTURA | EL TIEMPO

28/11/2014

KULTURA

XII. mende amaierako Durangaldeko eleberri historiko korala ondu du Mila Salterainek

du Mila Salterainek

XII. mende amaieran, Gaztelako Alfonso VIII.a erregeak Nafarroako errege Antso VII.ari Bizkaia kendu eta urte gutxira kokatu du «Erresumaren ilunsentia»-ren kontakizun korala Mila Salterainek.

A.K. DONOSTIA



Bienvenido a las noticias de Suscriptor

Has accedido a una noticia de pago y has consumido un clic de tu cuenta personal

[IMPRIMIR](#)

[ENVIAR](#)

0



1190 eta 1199 arteko epe historikoa hartu du erreferentzia gisa Mila Salterainek «Erresumaren ilunsentia» eleberrian (Txalaparta). Zehazki, 1190eko Santa Katelina egunean eman dio abiatupulta nobelari. Gaztelako Alfonso VIII.a erregeak Haro familiaren laguntzarekin Nafarroako Antso VII.a erregeari Bizkaia kendu eta gutxira biziak garaia da.

Durangaldean oinarritzen du kontakizuna, bi erresumen arteko mugan dagoen tokian. Bertako tenientea, Petro Latrone, Didaco Lupi Haroerkin azpilanetan dabil, Gaztelaren eskuik boterea handitzeko. «Herritarrek ez zeukaten arrazoirik Nafarroaren aurka joateko. Nori interesatzen zaio Durangaldea bere markora gehitzea? Lopez de Harori. Latronek lagundu egiten dio bide horretan, betiere trukean Alfonso VIII.a Gaztelako erregearen aldetik mesedeak jasotzeko», adierazi du Salterainek.

Nafarroako erregeak, ordea, arretaz zelatzen ditu muga-eskualde horretako jauntxoen azpijkokoak, bere erresuma eta herritarra barneko nahiz kanpoko etsai guztien erasoetatik defendatzera deliberatua.

Salterainek aurkezten duen eleberriak izaera korala du. Garai hartako errege eta jauntxo nagusienan erabaki eta hautuak fikziozko pertsonaietan nahasten ditu. Peru itsua, Anglesa serora edo Prudentzio sasikoa dira horietako batzuk. «Alde batetik ilustreak daude eta, bestetik, herritarak, herritar normal-normalak, gu bezalakoak, historia egiten dutenak nahiz eta beren izena inon agertzen ez den», argitu du. Bere hitzetan, «pertsonaia duinak eta azkarrak» dira eleberrian aurkezten direnak.

Guztien artean garai gatazkatsu baten irudi bizia eskaintzen du Mila Salterainek, Euskal Herriaren historiaren bidegurutze «erabakigarri» batekoia.